

BOLUNAKO LEZA

Kortezubiko Tomas Kobeagak kontatuta 1920an

Ama-alaba bi, eskekoak, Nabarniz mendira joan ziren. Bolunako leza (Ereñoko Gabikatik gertu) ondoan ikusi zituen alabak basikuak. Amari esan zion haiexek hartzeko. Ama igo zen tantaira eta jauzi zen bertara. Neska negarrez zegoen bertan, ama jauzi zaiola bertara-eta. Handik denbora garrenean, agertu zen amaren gona gorria Ereñoko Bollarko ura irteten den lekuan.

Ereñoko Gabika auzoko Boluna leza ezkerretara eta Ereñoko Bollar auzoko iturburua eskumara.

Joxe Miel Barandiaran
Obras Completas Tomo II
Eusko-Folklore
Editorial La Gran Enciclopedia Vasca
Bilbao, 1973